





Urtero bezala, Eskolako Agenda 2030 proiektuan herri mailan egindako lanketa ezagutzera eman nahi dizuegu. Aurten, Garapen Iraunkorreko 15. Helburuaren inguruan aritu gara lanean, **LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA** eta oso helburu zabala denez, **BASOA** izan da batez ere Tolosako ikastetxeek landu dugun gaia TIZen laguntzarekin.

19. ikasturtea dugun honetan, Tolosako ikastetxe guztiak Haur hezkuntzatik hasi eta Lanbide heziketaraino 4.710 ikasle inguru aritu gara gure inguruko basoen egoera ikuspegi desberdinetatik aztertzen. Eskolako beste langile, irakasle eta gurasoen laguntza izan dugu ere.

Lana udazkenean hasi genuen, gaian murgiltzeko ipuinak, jokoak eta jarduera desberdinak burutuz eta udaberri aldean gelatik atera eta zuzenean ikertzera atera gara. Jarraian egindako lana aurkeztuko dizuegu.

**Haur Hezkuntzakoak** batik bat gelan aritu dira marrazki eta jokoan bidez, basoan bizi daitezkeen animalia eta landareak ezagutzen. Gabonetan ere, antzeztutako saio baten bidez basoaren garrantzia eta basoa ondo zaintzeko zer egin eta zer ez dugun egin behar landu zuten. Eta mendian dagoena ondo ikusteko, komuneko paper tutuekin prismatiko eder batzuk egin zituzten.

**Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak** Tolosa inguruan ingurune naturaletan ibili gara eta naturak gure bizitzan duen garrantziaz jabetu gara. Oso gustura ibili gara kanpora atera garenean, gune berdeetan libre eta aske sentitzen gara. Faltan botatzen ditugu gauza gehiago egotea herriko eremu berdeetan: eskalatzeko lekuak, ezkutatzeko lekuak, sokak, txabolak egiteko egurra...adibidez.

**LHko 3. eta 4. mailakoak** herriko basoez gozatzeaz gain bertan zuhaitzak eta bizidun ugari bizi dela konturatu gara. Horrelako leku asko dago herrian eta inguruan uste dugu eta gertu daudela baina gutxitan joaten gara. Lasai ibiltzen gara toki hauetan baina batzuetan faltan bota dugu iturria eta bideak markatuta egotea.

**LHko 5. eta 6. mailakoak** basoaren egitura eta egoera aztertzen aritu gara, klabe dikotomikoak erabiliz bertako zuhaitzak nagusienak ezagutu ditugu eta animalia txikiak ere. Hauek dira atera ditugu ondorio batzuk:

- Tolosan mendira joan nahi badugu, aukera asko ditugu gertu adibidez, Uzturre, Txindoki, Uzturre Txiki, Zazpi bideak...
- Orokorrean familian joaten gara eta uda garaian edo jai egunetan.
- Toki batzuetan zaborra ere aurkitu dugu.



LHko ikasle on artean egindako lanaren ondorioak kontuan harturik, hauek dira basoak babesteko adostutako konpromisoak eta proposamenak:

### Lehen Hezkuntzako konpromisoak

- ✓ Basoan ez dugu zaborrik botako eta lurrian ikusten duguna bildu egingo dugu.
- ✓ Animaliak eta landareak errespetatuko ditugu: ez ditugu hartuko ezta apurtuko ere.
- ✓ Basoko zabor bilketak antolatzen badira, parte hartuko dugu.

### Eta udalari hau proposatu nahi dioqu:

- ✓ Herrian berdegune gehiago egokitzea haurrak eta gazteak, jolasteko...egoteko toki naturalak.
- ✓ Baso eskola proiekturako aterpeguneak sortzea, euria egiten duenean motxilak uzteko eta arropaz aldatzeko.
- ✓ Mendi bideak markatzea eta zaintzea.

**DBH1. eta 2. mailakoek** gure lurraldean dugun landaretza aztertu dugu eta gizakiaren eraginaren ondorioz aldatzen joan dela ikusi dugu. Lehengo basoak eta oraingoak konparatu ondoren laburbilduz hau esango genuke:

- Lehen larre gehiago zegoen eta basoak anitzagoak ziren. Gaur egun eraikuntzak nagusitu dira eremu hauetan.
- Azken urteetan basoen parte txiki bat berreskuratu da eta zenbaitetan bertako espeziei lehentasuna ematen ari zaie.
- Batzuetan birlandaketak egin dira eta besteetan basoak bere kasa berreskuratzen utzi egin dira.
- Gizakiaren eraginez, biodibertsitatearen galera nabarmena da: baso asko suntsitu da eta zaborra ugaritu egin da.
- Elosgi parkera ere joan gara eta parkeko zuhaitz mota ezberdinak ezagutu ditugu baina zabor ugari eta pintaketak ere ikusi ditugu.

**DBH3 eta 4. mailakoek** galdetegi bat egin dugu herritarren artean basoaren inguruan dugun ezagutza jakiteko eta iritziak jasotzeko, eta hau ikusi dugu:

- Herritar gehienek, batez ere adin batetik aurrera, inguruko mendiak ezagutzen dituzte, informazioa menperatzen dute.
- Gure adinekoen artean berriz:
  - Inguruko mendi eta zuhaitzen izenak ezagutzen ditugu baina ez ditugu bereizten.
  - Mendira joaten garenean ez gara fijasen zer dagoen inguruan.



- Orokorrean gustuko dugu basoetan ibiltzea baina gutxi joaten gara, ez dugu denborarik.
- Familiarekin goaz, uda garaian batipat eta egun jakinetan, Abenduak 31 eta Urtarrilak 1 adibidez. Edo txakurrarekin.

**Batxilergoan** eskualdeko basoen inguruko txostenak egin ditugu eta aztertutako herrietako egoera nahiko antzekoa dela esango genuke eta honela definituko genuke:

- Baso eremua zabaldu egin da landa eremua lantzeari utzi zaiolako eta zuhaitzak llandatu ziren.
- “Baso” landatuak eta pribatuak baso naturalak eta publikoak baino kopuru handiagoan daude.
- Lehengo lursailetan orain eraikuntzak daude, hemendik urte batzuetara ingurune natural oso gutxi egongo direlaren sentsazioa daukagu.
- Lehen sektoreak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, baita bertako basoen beharra biodibertsitatea mantentzeko.

**Lanbide Eskolak** Amartzeko basoan garbiketa lanak egin ondoren landaketa bat egin dute. Lanketa honi eta azken urtetan eremu honetan egindako interbentzioei esker, degradatua izandako eremu hau naturala eta atsegina bihurtuko da herritar guztiok erabil ahal izateko

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasle on artean egindako lanaren ondorioak kontuan harturik, hauek dira basoak babesteko adostutako konpromisoak eta proposamenak:

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko konpromisoak

- ✓ Udalak antolatzen dituen ekimenetan parte hartuko dugula, adibidez mendi garbiketarako antolatzen badira, zuhaitz landaketak...
- ✓ Eta mendira joaterakoan, zaborrik ez dugula botako eta sortzen duguna, gurekin ekarriko dugula etxera bueltan.
- ✓ Mendiko fauna eta landaredia errespetatuko dugu
- ✓ Paperaren kontsumoa murriztuko dugu: inprimatzen bakarrik beharrezkoa denean, bi aldeak aprobetxatuz...

### Eta udalari hau proposatu nahi diogu:

- ✓ Mendi eremu pribatuak erosi basoak modu egokian kudeatzeko eta zaintzeko.
- ✓ Hitzaldi eta mendi ekintzak antolatzea.



- ✓ Ibaiaren garbiketa egiten den bezala, baso garbiketak antolatzea.
- ✓ Eta ELOSEGI PARKEAN: Zaborra sailkatzeko zabor ontzi egokiak jartzea eta iturria jartzea.

Hau izan da ikasturte honetan egindako lanaren laburpena. Aurreko urtetan bezala, zuen erantzunaren zain gelditzen gara. Datorren ikasturtean eta bi ikasturtez 7. Helburuaren inguruan arituko gara, Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea, Tolosa Garapen Jasangarrirako Helburuetan aurrera egin dezan laguntzen.

**Eskerrik asko zuen arretagatik eta nahi duzuen arte!**

